

Atez ateko zabor bilketa

# Azken solairuan ere bildu daiteke organikoa

Hirian zaborra atez ate biltzea ezinezkoa dela esan izan dute zenbaitzuk. Baina Kataluniako ekimenek hankaz gora jarri dute uste hori. Biztanle dentsitate handiko herri batzuetan emaitza bikainak izan ditu sistema horrek.

URKO APAOLAZA


BARTZELONAKO Canet de Mar herrian 12.429 lagun bizi dira 5,5 kilometro koadrotan eta zaborra –organikoa ere bai– atez ate biltzen da bertako etxebizitza guztietan. Biztanle dentsitate handiko herria da Canet de Mar, 2.400 bizt/km<sup>2</sup> ditu; hau da, Donostialdekoa bikoiztu egiten du. Zifra hori esanguratsua da, zaborren inguruan Gipuzkoan azken urteetan sortu den eztabaidan uste oker bat agerian uzten baitu.

## Marroia denena da, zaborra norberarena

Errausketaren aurrean, San Markos Mankomunitateko arduradunek eta herri plataformek diote zaborraren banaketa eta bilketa etxebizitza bakoitzetik egitea dela alternatiba. Modu horretara birziklapen tasa izugarri igotzen da, batez ere gai organikoak konpostatzeko biltzen direlako. Hain zuzen, Usurbilen datorren urtearekin hastekoak dira funtzionamendu horrekin, Xabier Errekondo alkateak (EAE-ANV) adierazi duenez.

Baina Gipuzkoako Hondakinen Partzuergotik eta Aldunditik behin eta berriz entzun dugu soilik herri txikietan gauzatu daitekeela atez ateko bilketa sistema –Usurbilek 5.000 biztanle ditu– eta dentsitate handiko auzoetan, aldiz, zailagoa dela. Horrela, Gipuzkoarako hiri hondakinen Planak ez du aurreikusten atez ateko zabor bilketarik hiriguneetan eta beste aukera batzuk proposatzen ditu; esaterako, zabor organikoa biltzeko bosgarren kontenedore bat. Kontenedore “marroia” deitzen dena hainbat udalerritan jarri du Diputazioak, baita Donostiako Amara auzo populatuan ere –1.470 familiak parte hartu dute programa horretan, biztanleen %15ak–. Bertan bildutakoa Azpeitiako Lapatx konpost plantara eramaten ari dira maiatzaz geroztik.

Ekologisten aburuz kontenedore marroiak ez dio aterabiderik emango zaborraren arazoari,



**Atez ateko bilketa gauza erreala da; Katalunian 250.000 lagun baino gehiago ari dira jadanik horretan.**

izaera boluntarioa duelako –nahi ez duenak ez du zertan erabili– eta hiriguneetan atez ateko bilketa egitea posible dela ziurtatu dute. Italiako Novara herrian (100.000 biztanle), adibidez, hondakinen %70 birziklatzen da eredu hori erabiliz. Bestalde, Katalunian kontenedo-

reak erabiltzen dituzten udalerrien artean %30 birziklatzen da, atez ateko bilketa ezarri duten herrietan, aldiz, %80ko tasa izan dute.

Duela gutxi, udalerrietan atez ateko bilketa egiteko gida kaleratu dute Katalunian (*Manual municipal de recollida selectiva porta a porta a Catalunya*). Gida horretan udalerrri bakoitzaren emaitza eta datu zehatzak jakin daitezke. Canet de Marrez gain, beste herri batzuetan biztanleria dentsitatea handia dago –ikus koadroa–. Herritarrek egutegi zehatza dute zaborra igortzeko eta ohartarazpenak jasotzen dituzte bereizketa ongi ez badute egiten. Nola moldatzen dira herri populatu horietan atez ateko bilketa selektiboa egiteko? Zein dira hiriguneetan aplikatu beharreko gakoak?

### Etorrizunerako hitza: “coresponsabilització”

Kataluniako *Porta a Porta* (PaP) udalerrien elkarteak kaleratutako gidak dio sistema horrek erronka nagusi bat duela hirietan: zaborraren indibidualizazioa mantentzea. “*Com més clarament s’aconsegueixi aquesta individualització, més fàcil serà sostenir la coresponsabilització i la percepció d’obligatorietat*”, dio gidak. Hau da, herritarrek erantzukizun sentsazio handiagoa izaten dutela zaborra banakatzen denean, eta bide horretan, zabor gutxiago sortzen dela.

Eraikinak dituen solairu, bizitza eta ezaugarriak nola, hondakin banakaketa hala. Bizitza kopurua gehitzen doan heinean, bereizketa solairu eta eskailera bakoitzeko egiten da. Bestalde, zaborra uzteko lekua da hiriko arazo larrietako bat. Kataluniako herrietan soluzio ezberdinak bilatu dituzte: ezkaratzetan leku berezia egokitu, espazio publiko ordutegi zehatzetan okupatu... Hondakinak biltzeko udal zerbitzuak ez du berebiziko egokitasunik behar eta esperientziak erakutsi du kudeaketa zuzenak –azpikontrataziorik gabe– komunikazioa hobetu eta herritarren konfidantza handitu duela. Dena den, PaPko udalerrien %20k bakarrik kudeatzen du zuzenean zaborren bilketa oraindik.

### Eztabaida gainditua?

Badira urte batzuk Katalunian hainbat erraustegi dituztela. Horregatik, Zubietako (Gipuzkoa) erraustegiaren alde daudenek diote zaborrak erraustea bateragarria dela birziklapenarekin. Baina hain justu, Katalunian atez ateko bilketaekin hasi ziren erraustetarako soluziorik ematen ez zuelako. Duela urte

BILKETA ETA BIZTANLE DENTSITATEA KATALUNIako ZENBAIT HERRITAN			
Herria	Biztanleak	Dentsitatea (bizt./km <sup>2</sup> )	Birziklatzeko bildutakoa
Canet de Mar	12.429	2.400	Lehen %13
			Orain (atez ate) %61
Argentona	10.868	448	Lehen %19
			Orain (atez ate) %52
Saint Sadurn d'Anoia	11.350	621	Lehen %26
			Orain (atez ate) %81

\* Biztanle dentsitatearen konparaketarako (biz./km<sup>2</sup>): Eibar 1.100; Hernani 480; Pasaia 1.400; Beasain 430; Tolosa 478.

batzuk bederatzi erraustegi zeuden, gaur egun, lau besterik ez. Dena den, eztabaidak puri-purian jarraitzen du, ez bakarrik erraustetari dagokionez, zabor bilketa sistema ere auzitan baitago.

Vilassar de Mar-en 2003an hasi ziren zaborra atez ate biltzen; %60ko birziklapen tasak lortu dituzte eredu hori erabiliz eta hainbat sari ere irabazi dituzte lan horregatik –18.000 biztanleko herri koxkor eta turistiko honetan etxebizitza bertikalak eta populatuak dira nagusi–. Baina iazko azaroen Udala Gobernu berriak kontainerren sistema tradizionalera itzultzea erabaki zuen, antza, orain artekoak kostu handia zuelako dirutan eta ez zuelako “funtzionatzen”. Horrek protesta ugari eragin du PaPren alde daudenen artean, plataforma bat ere sortu dute eta Udalak gastatutako dirua “inbertsio pedagogikoa” izan dela esan dute bere arduradunek.

Vilassar de Marreko eta Kataluniako beste hainbat herritako adibideek erakutsi dute hiriko etxe blokeetan ere birziklatu daitekeela zaborrari izena jarritz, baita azken solairuan ere. Beraz, Gipuzkoako herri populatuenean ere egin dezakete halakorik; herri bakoitzari hoberen datorkion eredu logistikoa

ezartzea da gakoa. ■

**Porta a Porta elkarteak atez ateko bilketa egiteko gida kaleratu du; hirietako erronka nagusia da zaborra norberarena dela sentiaraztea herritarrari**

